



OROITIDAZKIA 2013



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3	III. 2 Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea	28
1. ERAKUNDEAREN JARDUERAK	5	III. 3 IKT batzordea	29
I. Barne Jarduera	5	III. 4 <i>Erlea</i> aldizkaria	29
II. Kanpoko jarduera	10	IV. R. M. Azkue Sariak	30
III. Sariak	18		
2. AKADEMIA JARDUERA	19	3. ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK	
I. Iker Saila	19	I. Azkue Biblioteka eta Artxiboa	32
I. 1 Hiztegegintza	22	II. Onomastika zerbitzua	33
I. 2 Gramatika	22	III. Argitalpen zerbitzua	34
I. 3 Dialektologia	22	IV. Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua	35
I. 4 Onomastika	23	V. Prentsa eta Komunikazio zerbitzua	36
I. 5 Literatura	26	VI. Jagonet zerbitzua	36
II. Jagon Saila		4. HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK	37
II. 1 Corpus batzordea	27		
II. 2 Euskalkien lantaldea	28	5. WEBGUNEA ETA GIZARTERATZE LANA	39
II. 3 Sustapen batzordea	28		
II. 4 Joanes Etxeberri egitasmoa	28	6. EMAITZA EKONOMIKOAK	42
III: Egiturazko batzordeak	28	I. Egoera-balantzea	43
III. 1 Argitalpen batzordea	28	II. Galdu-irabazien kontua	44



Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria.

AURKEZPENA

2013KO OROITIDAZKIAREN ATARIAN

Urte bat gehiago iragan da, eta lanean segitzen du Euskaltzaindiak. Usurbilgo poetak zuhurki gogora-tzen digunez, iturri zaharretik egunero ur berria dator. Nolabait, horixe da lanbide guztien egitekoa, betiko gauzak egiten irautea, baina, ahal delarik, bakoitza era berrian. Euskaltzaindiaren nahia ere horixe da, euskarak, edo hobeki esateko euskaldunek, mintzaira beren eguneroko bizitzan eta garabidean dara-

biltenean, berak behar dituen arau, orientabide, aholku eta premiazko dituen gainerako laguntzak eskaini ahal izatea, hogeita batgarren mendeko mintzaira batek bere bidea lasai eta egokiro egin dezan.

Horretarako, bizirik dagoen beste edozein organismok bezala, kultura erakundeek beren egitekoez eta beroriek lortzeko jokabideez aldizka gogoeta egin behar izaten dute, beren funtzioak betetzean, nahi bezala, egiazko zerbitzua eta laguntasuna eman ahal izateko.

Iaz, 2013ko martxoaren 21 eta 22an Euskaren Akademiak bere 18. Barne Jardunaldiak antolatu zituen Bilbon, horietan 2011.ean onarturiko Plan Estrategikoa garatzeko helburuaz. Horietan egitasmo guztien bana-banako berrikusketa egin zen, batzorde, lantalde eta zerbitzuen. Horrez gainera, 2013-2016 aldirako helburuak berraztertu ziren, epe berri honetarako organigrama ezarriz.

Argi ageri zen organigrama horrek, alde batetik, ondo gogoan eduki behar zuela egiteko horien funtzio so-

ziala, eta, beraz, gure gizartearen egiazko premiak eta eskariak betetzera bideratua izan beharko zuela. Bestetik, ezin genezakeen bazterrean utz, une historiko honetako egoera ekonomiko larria, eta horrek, noski, Akademiaren baliabide ekonomikoen murrizketa zekarrela. Euskararen ofizialtasunak, bestalde, aldean gizarte-eskakizunen gorakada ekarri du. Nahitaezkoa izan da, hortaz, aldi berri baterako bultzada ematea, baina neurriak ondo harturik, aurrekontuetan estali ezin-eko gehiegikeriak oro saihesturik.

Oinarrizko irizpide horien eskutik mamitu dira, beraz, hemen aurkezten diren datu-argitasunak.

1

ERAKUNDEAREN JARDUERAK

I. BARNE JARDUERA

Euskaraz, hau da, euskal hizkuntzaz arduratzen den erakunde ofiziala da Euskaltzaindia (1919). Hizkuntzaren corpus-az arduratzen da, baina, halaber, baita berorren estatus sozialaz ere. Hortaz, bi sail izan ditu Euskaltzaindiak, Iker eta Jagon Sailak, bere jardueraren baitan.

Akademiak ezagutza ofizial osoa du, Espainian Erret Akademia bezala (1976), eta Errepublika Frantsesean Onura publikoko erakunde gisa (1995). Bestalde, bai Gernikako Estatutuak -abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan-, bai eta Nafarroako Gobernua ere -abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legean- euskarari dagokionean Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala onartzen dute.

Euskaltzaindiaren jarduera akademikoa batzorde eta lantaldeen bidez egiten da eta langintza horien emaitzak giza baliabide

eta azpiegiturazko zerbitzuekin antolatzen eta gauzatzen dira. Zerbitzu hauek, bestalde, herritarrei nahiz erakundeei erantzuteko ezinbestekoak dira.

Akademiaren egoitza Bilbon kokatzen da. Bilbon egin ohi dira hilero Osoko bilkurak eta Zuzendaritzakoak; batzuetan, Donostian eta beste toki batzuetan ere egiten dira bilera horiek. Normalean, hilean bi aldiz biltzen da Zuzendaritza. Erakundearen gobernuak, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne jardunbidearen agintea eta erantzukizuna dagokio Zuzendaritzari. Aurten 23 bilera egin ditu.

Bestalde, batzorde, egitasmo eta lantaldeak ere egoitzan eta ordezkaritzetan biltzen dira. Idazkariordea arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz eta bateratzeaz. Lan hauen guztien berri ematen die kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta, ezarritako epeetan, dagokien Herri Administrazioei, behar diren txostenak prestatuz.

Herri Aginteekin sinatutako hitzarmenen arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere burutzen ditu idazkariordeak, kudeatzailearekin batera.

I.1. Hamalau euskaltzain urgazle berri

Otsailaren 22an, Euskaltzaindiak Bilbon egin zuen Osoko bilkuran, 14 euskaltzain urgazle berri izendatu zituen. Guztiak Akademiaren batzorde akademikoetan lanean ari dira, gutxienez 2005. urtetik.

Hauek dira euskaltzain urgazle berriak: Iñaki Aldekoa, Kaxildo Alkorta, Iñaki Amundarain, Nagore Etxebarria, Beatriz Fernandez, Juan Garzia, Antton Gurrutxaga, Patxi Juaristi, Gerardo Luzuriaga, Elena Martinez de Madina, Felix Mugurutza, Manu Ormazabal, Erramun Osa eta Iratxe Retolaza.

I.2. *Onomasticon Vasconiae* bilduma osoa Euskaltzaindiaren webgunean kontsultagai

Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* bilduma osoa webgunean jarri du Akademiak. Bertan, bilduma horren barruan argitara eman diren 29 liburuak kontsulta daitezke.

Euskaltzaindiaren *Onomasticon Vasconiae* bilduman Euskal Herriko leku askotako toponimoak jaso dira. Pertsona eta leku izenen garrantziaz oharturik, Akademiak bilduma hau abian jarri zuen aspaldian, tokian tokiko izenak biltzeko, aztertzeko eta forma idatziak finkatzeko asmoz. Hala, bilduman Euskal Herriko onomastikari buruzko ikerketak argitaratzen dira.

I.3. Hiztegi Batuaren azken bertsioa sarean

Hiztegi Batuaren azken bertsioa sarean jarri du Euskaltzaindiak. Hala, Akademiak arautu dituen 42.942 forma erabilizaile guztien esku jarri dira, webgunearen bitartez. Aurkezpena martxoaren 6an egin da Donostian.

Hiztegi Batua bi alditan egin du Euskaltzaindiak. Lehen itzulia 2000. urtean amaitu, eta lehen argitaraldia kaleratu zuen paperean, 20.000 euskal hitzen forma arautuekin. Hori Hiztegi Batuaren lehen itzulieren bukaera izan zen. Ordutik hona, bigarren itzulian, forma gehiago arautzen joan da, eta emaitzak paperezko beste bi argitaralditan ematen, azkena 2010ean.

Oraingoan, 2012. urtearen bukaera arte, bigarren itzulia osatuz, arautu dituen forma guztiak jarri ditu Akademiak bere webgunean. Guztira 42.942 forma ditu orain Hiztegi Batuak (36.845 sarrera eta 6.097 azpisarrera), paperezko azken bertsioak baino 2.763 sarrera eta 508 azpisarrera gehiago.

2009tik hona, bultzada handi bat eman dio Euskaltzaindiak Hiztegi Batuari, horretarako sortu zuen Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldunduaren lanari esker. Horiek horrela, 2. itzuli osoa amaitutzat eman du, Osoko bilkurara joan aurretik eztabaidatu baititu batzorde ahaldunduak arazoak zituzten formak, eta onartzeak bakarrik eraman baitira bilkurara.

I.4. *Nafarkariaren zenbaki guztiak* Euskaltzaindiaren webgunean

Nafarkaria, Euskaldunon Egunkariaren Nafarroako gehigarriaren ibilbide osoa, hots, bizirik iraun zuen bitartean kaleratu ziren 547 zenbakiak, sistematizatu eta digitalizatu dira, eta Euskaltzaindiaren webgunean kontsulta daitezke. Lana Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmenari esker burutu da.

1991eko abenduaren 6an kaleratu zen lehenbizikoz *Nafarkaria, Euskaldunon Egunkariaren* Nafarroako gehigarria. Geroztik ostiralero ikusi zuen argia, harik eta 2002ko uztailaren 26an, larritasun ekonomikoak itota, desagertu zen arte.

2011rako sinatu zuten hitzarmenean, Akademiak eta Gobernuak *Nafarkaria* digitalizatzea eta Interneten kontsultagai jartzea adostu zuten. Halaxe egin da, eta lan horren fruitua da sarean jarri dena.

I.5. “Herri Literatura Jardunaldietako Antologia” atal berria Euskaltzaindiaren webgunean

Maiatzaren 31n, Euskaltzaindiak atal berri bat zabaldu du Interneten, bere webgunean. “Herri Literatura Jardunaldietako Antologia” du izena. Bertan, Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeak antolatu dituen herri-literaturari buruzko jardunaldietako ekarpenik mamitsuenak bildu dira. Horietako bi -Antonio Zavalak eta Bernardo Atxagak 1994an eta 2005ean eman zituzten hitzaldiak- lehen aldiz argitaratu ditu Akademiak. Are gehiago, Atxagarena argitaratu gabea zen eta lehenbiziko aldiz jartzen da orain publikoaren eskura.

Pello Esnal batzordeko idazkariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak egin dute atal berriaren aurkezpena, Donostian.

I.6. Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso

Jabier Kaltzakorta euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak. Uztailaren 19an, Bilbon egin den Osoko batzarrean, Jose Luis Lizundia euskaltzain emeritu izatearen ondorioz sortutako hutsunea betetzeko bozketa egin du Akademiak. Kaltzakortak, Euskaltzaindiaren Arautegiak eta Barne-erregelek agintzen duten gehiengo osoa lortu du.

Kaltzakortaren hautagaitza Adolfo Arejita, Xabier Kintana, Patxi Uribarren eta Andres Urrutia euskaltzainek aurkeztu dute.



Andres Urrutia eta Pello Esnal “Herri Literatura Jardunaldietako Antologia” aurkezpenean.

I.7. Orotariko Euskal Hiztegiaren 3. argitaraldi elektronikoa

Ekainaren 28an, Euskaltzaindiak Orotariko Euskal Hiztegiaren 3. argitaraldia aurkeztu du Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean. Bertsio berriak, guztira, ia 3.000 sarrera berri -sarrera nagusi eta azpisarrera- ditu. Aurkezpena honako hauek egin dute: Andres Urrutia euskaltzainburuak; Ibon Sarasola egitasmoaren zuzendaria; eta Gabriel Fraile teknikariak. Eurekin batera, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko presidentea izan da.

OEHren lehen bertsioa paperean argitaratu zen. Azken liburukia -hamaseigarrena- 2005ean kaleratu zen, eta handik lau urtera, 2009an, hiztegi osoaren oinarriko bertsio elektronikoa sarean jarri zen. 2011n, bigarren argitaraldia eskaini zuen Akademiak eta orain, 2013an, hirugarrena. Bigarren argitaraldian, hasierako bost liburukien berrikuspen sakona egin zen, eta testu zahar batzuetako lekukotasunak gehitu ziren (Lazarragaren eskuizkribua garrantzizkoena izan zen). Orain aurkeztu den hirugarren argitaraldian, berri, gainerako hamaika liburukien berrikuspena egin da.

I.8. XVIII. Jagon Jardunaldiak, “Euskara Nafarroatik”

Azaroaren 15ean, Akademiaren Sustapen batzordeak antolatutak, XVIII. Jagon Jardunaldiak egin ditu Euskaltzaindiak, Iruñean, Kondestablearen Jauregian, "Euskara Nafarroatik" izenburupean. Jardunaldiotan, euskararen sustapenean ari diren elkarte eta erakundeekin batera, euskararen inguruan gogoeta egin du Euskaltzaindiak. Hala, euskarak Nafarroan izan duen iragana eta egungo egoera aztertu dira, eta etorkizunari buruz hausnartu da. Era berean, azken urteetan egin diren eta egiten ari diren egitasmoen berri jaso da.

Andres Urrutia euskaltzainburuak, José Iribas Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilariak eta Jean-Baptiste Coyos



Orotariko Euskal Hiztegiaren 3. argitaraldi elektronikoa aurkeztu zutenak: Ezkerretik eskuinera, Ibon Sarasola, Bakartxo Tejeria, Andres Urrutia eta Gabriel Fraile.

Jagon sailburuak hasiera eman diote jardunaldiari. Ondoren, goizez eta arratsaldean, hizlari guztien txanda hasi da. Hauek izan dira parte-hartzaileak: Jon Aizpurua, Julen Calvo, Paula Kasares, Juan Karlos Etxegoien Xamar, Xabier Erize, Ainhoa Urretagoiena, Garikoitz Torregrosa, Iñaki Lasa, Mikel Belasko, Ana Mindegia, Gaizka Aranguren, Javier Fernandez, Joxerra Olano, Oskar Zapata, Txomin Uharte eta Xabier Epaltza. Amaieran, Sagarrio Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Erramun Osa idazkariak ondorioak irakurri dituzte.

I.9. "Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean" ikastaroa Baionan

Abenduaren 9an, "Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean" izeneko ikastaroa egin da Baionan, Euskararen Erakunde Publikoaren egoitzan. Euskaltzaindiak eta EEPk elkarlanean antolatu dute, eta Patxi Salaberri Onomastika batzordeko buruak, eta Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Paskual Rekalde eta Felix Mugurutzak batzordeko kideek eman dute.

Herrietako toponimia ikertu, finkatu, erabili eta zaintzeko ikastaroa izan da, eta bereziki euskara, hirigintza eta kultura alorreko teknikariei zuzenduta egon da.

Patxi Salaberrik "Euskaltzaindia eta onomastika lanak" mintzaldia eman du. Patxi Galék "Toponimia ikerketen oinarri teorikoak" gaiak hitz egin du. Mikel Gorrotxategi "Toponimia ikerketak gauzatze-prozedura eta ikerketaren pausoak" gaiak aritu da. Paskual Rekaldek "Administrazioen eginbeharra" gaia jorratu du. Eta Felix Mugurutzak "Onomastikaren zabaltzea" gaiak hitz egin du.

I.10. Literaturaren Historiografia. II. Jardunaldiak

Abenduaren 13an, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak Literaturaren Historiografia. II. Jardunaldiak antolatu ditu. Batzordea Antologia bat osatzen ari da, eta bigarren jardunaldi horien helburua Antologian periodizazioa nola zehaztu argitzea izan da, besteak beste. Partaideak bi eztabaida-leerro hauen inguruan aritu dira: XVII-XVIII-XIX. mendeko aldikatzea; eta aldikatzearen inguruko ekarpen teorikoak.

Jardunaldian honako hauek aurkeztu dituzte txostenak: Ana Toledok, "Euskal literatura aldikatuz: non dago eredia?"; Lourdes Otaegik, "Antologia poetikoak eta historiografia. Euskal literaturaren aldizkapena eta kanonaren eraketa"; Jon Casenavek, "Periodizazioa eta

eremu kulturalaren eragina: iparraldeko eta hegoaldeko eredu historiografikoen konparaketa"; Josu Bijuescak, "Euskara eta vascuence hitzen adiera metriko-poetikoak: katebegi ostenduak, aroen mitoak eta aldizkatze irizpideak euskal literaturaren historian"; eta Joseba Gabilondok. "Literatur historia postnazionala: mende-genero-belaunaldi-autore zatiketaren ideologia filologiko hilaren ondoko historiografiaz".

I.11. Heriotzak

2013an ondoko euskaltzain hauek hil dira: Karmele Roaetxe ohorezko euskaltzaina (maiatzaren 2an), Peli Martin euskaltzain urgazlea (abuztuaren 21ean) eta Jean Haritschelhar euskaltzain emeritu eta euskaltzainburu ohia (irailaren 1ean).



Literatura Ikerketa batzordeak Literaturaren Historiografia. II. Jardunaldiak egin zituen, Donostian.



Txillardegi, Karmele Esnal eta Josu Arenazaren senideak; Martin Garitano, Gipuzkoako Ahaldu Nagusia, Andres Urrutia, Xabier Kintana, Jean-Louis Davant eta Miren Azkarate.

I.12. Hilberri txostenak

Urtarrilaren 25ean, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2012. urtean hil ziren euskaltzainak omentzeko. Ekitaldian, euren omenezko hilberri txostenak irakurri ziren. Hauek dira euskaltzain omenduak:

- Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi” (1929-2012) euskaltzain urgazlea. Jean Louis Davant euskaltzain osoak eta Joxe Austin Arrieta euskaltzain urgazleak txosten bana irakurri dute.
- Karmele Esnal (1932-2012) ohorezko euskaltzaina. Miren Azkarate euskaltzain osoak hilberri txostena irakurri du.
- Josu Arenaza (1930-2012) euskaltzain urgazlea. Xabier Kintana euskaltzain osoak hilberri txostena irakurri du.



Bestalde, beheko argazkian ikus daitekeenez, abenduaren 20an, Baionako Herriko Etxean, Jean Haritschelhar zenaren omenezko hilberri txostena irakurri zuen Beñat Oihartzabal euskaltzainak.

II. KANPOKO JARDUERA


Betidanik lan egin du Euskaltzaindiak beste Berakundeekin elkarlanean. Hauek dira 2013an era horretan antolatutako ekitaldi batzuk:

II. 1. Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak

Urtarrilaren 17an, Bilboko EHUren Bizkaia Aretoan, Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak banatu dira. Ekitaldian sariok antolatzen dituzten bi erakundeen ordezkariak izan dira: Euskaltzaindiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana idazkaria; eta UPV / EHUrean, Iñaki Goirizelaia errektorea eta Xabier Etxaniz Euskara eta Elea-niztasuneko errektoreordea.

Sarituak honako hauek izan dira:

- Zientzia Esperimentalak: hutsik geratu da.
- Ikasketa Teknikoak: Arantxa Otegi Usandizaga. Tesia: “Hedapena informazioaren berreskurapean: hitzen adiera desanbiguazioaren eta antzekotasun semantikoaren ekarpenak”.
- Osasun Zientziak: Karlos Ibarguren Olalde. Tesia: “Helduen ospitalez kanpoko bihotz-biriketako geldialdien analisia Euskal Autonomia Erkidegoan”.
- Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak: Iñaki Lazkano Arrillaga. Tesia: “Bigarren aukeraren auzia eta itxaropenaren izaera etikoa Krzysztof Kieslowskiren azken garaiko zineman.”



Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sarietan saritutakoak. Ezkerretik eskuinera: Iñaki Lazkano, Larraitz Zubeldia, Arantxa Otegi eta Karlos Ibarguren.

- Giza Zientziak: Larraitz Zubeldia Arruabarrena. Tesia: “Omen” partikularen azterketa semantikoa eta pragmatikoa.”

II. 2. Mauleko Libürüaren Egüna, Sarako Idazleen Biltzarra, liburu azokak

Martxoaren 16an, Mauleko II. Libürüaren Egüna festan izan da Euskaltzaindia, eta saltokia jarri du. Akademiak Zuberoarekin lotura duten argitalpen batzuk eraman ditu, eta baita azken nobedadeak ere. Aurtengo edizioaren gai nagusia emakumea eta literatura izanik, gai honen inguruan ekitaldi ugari egin dira egun osoan zehar. Miren Agur Meabe idazle eta euskaltzain urgazleak olerki batzuk irakurri ditu, eta mahai-inguru batean hartu du parte. Jean-Baptiste Coyos eta Jean-Louis Davant euskaltzain osoak Libürüaren Egünean izan dira, eta Andres Urrutia euskaltzainburua ere Maulera joan da.

Apirilean lean, Sarako Idazleen Biltzarrean, honako hiru liburuak aurkeztu ditu Euskaltzaindiak. Hona hemen: *Jon Mirande, olerkaria*, Txomin Peillenena; *Antoine D'Abbadie, Abbadiaz*, Jean-Louis Davantena; eta Gratien Adema “Zaldubi”ren *Gaineratekoen bilduma*, Henri Duhauk prestatua.

Bestalde, Euskaltzaindiak parte hartu du Bilboko Liburu Azokan. Maiatzaren 31tik ekainaren 9ra bitartean Areatzen egin den Azokan, saltokia jarri du Akademiak eta urte osoan argitaratutako liburuak izan ditu salgai. Era berean, Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekaren laguntzarekin antolatu den “Euskal emakume idazleak” izeneko erakusketan parte hartu du Akademiak.

Horretataz gain, Institut d'Estudis Catalans eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera, Euskaltzaindia Madrilgo Liber Azokan izan da urrian, hilaren



Euskaltzaindiak Sarako 2013ko Biltzarrean egindako aurkezpena. Ezkerretik eskuinera: Henri Duhau, Xarles Videgain, Frantxua Maitia, Andres Urrutia eta Txomin Peillen.

2tik 4ra. Aipatu hiru erakundeok erakustoki berean izan dira. Eta, urtero bezala, Euskaltzaindia. Abenduaren 5etik 8ra bitartean egin den Azokan, saltokia jarri du Akademiak eta urte osoan kaleratutako liburuak izan ditu salgai.

II.3. Korrikan eta Nafarroan Oinezen

Euskaltzaindiak bat egin du 18. Korrikarekin, eta martxoaren 24an lekukoa eraman du Baionan, euskararen aldeko lasterketaren azken egunean, 2.584. kilometroan. Erakundearen izenean, Xarles Videgain Akademiaren buruordeak eta Jean-Baptiste Coyos Jagon sailburuak eraman dute.

18. Korrikaren leloa “Eman euskara elkarri” izan da eta martxoaren 14an abiatu da, Andoaindik, Martin Ugalde kultur parketik.

Nafarroa Oinez Nafarroako ikastolen aldeko festaren alde ere agertu da Euskaltzaindia, urtero bezala. Urriaren 4an, Tuteran, aurtengo Nafarroa Oinez antolatu duen Argia ikastola bisitatu dute euskaltzainek.

Bisitaren ostean, Akademiaren Zuzendaritzak bilera egin du. Bisitak iraun bitartean, Euskaltzaindiak Nafarroako ikastolei, eta oro har, euskalgintzari, atxikimendua adierazi die. Aurtengo Nafarroa Oinez festaren leloa “Taupadaz bat egin!” izan da.

Bestalde, IKER ikerketa gunek eta ARPIST dokumentazio sareak antolatuta, “Ikerketarako dokumentazio-tresna eta zerbitzu numeriko edota digitalak: Akitania eta Euskal Herriko lan ildoen elkartrukaketa” izeneko jardunaldia egin da ekainaren 11n, Universite de Pau et des Pays de l’Adour Unibertsitatearen Baionako campusean. Andoni Sagarna euskaltzainak eta Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako zuzendariak parte hartu dute, eta “Euskaltzaindia: liburutegia, artxiboak eta euskal eduki sozialak” hitzaldia eman dute.

II.4. Iñaki Eizmendi “Basarri”-ren eta Eusebio Maria Azkueren omenez

Azaroaren 27an, ehun urte bete dira Inazio Eizmendi “Basarri” bertso-lari, kazetari, idazle eta ohorezko euskaltzaina jaio zela. Mendeurrena dela-eta, urte osoan zehar “Basarri”-ren omenezko ekitaldiak egin dira.

Zarauzko Udalaren eta “Montxia” Bertso Eskolaren ekimenez antolatu da urte osoko omenaldia. Ondoko erakundeak izan dituzte alboan, mendeurrenaren egitaraua prestatzeko: Zarautz Abesbatza, Eusko Ikaskuntza, Bertsozale Elkarte, Foru Aldundia eta Euskaltzaindia. Akademia ere Zarautzen izan da, eta azaroaren 29an Osoko batzarra egin du Udaletxean. Ondoren, Udalarekin batera, Ageriko bilkura egin du.

Juan Luis Illarramendi Zarauzko alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman diote ageriko bilkurari. Joxe Mari Iriondo ohorezko euskaltzain eta Akademiaren Herri Literatura batzordeko kideak “Basarri 1931-1943” hitzaldia eman du, eta Xabier Euzkitze batzorde bereko kideak bertsoak kantatu ditu, ekitaldian zehar.

Bilkura horretan ere, “Basarri”-ren senideei oroitarri bat eman zaie. Amaitu ostean, Udalak Euskaltzaindiari plaka bat eman dio. Honela dio: “Zarauzko Udalak Euskaltzaindiari. Inazio Eizmendi BASARRI-ren jaiotzaren mendeurrenean. Zarautzen, 2013ko azaroaren 27an”.

Ondoren, Sanz Enea Kultura Etxean dagoen “Basarri”-ri buruzko erakusketa ikustera joan dira euskaltzainak.

Irailaren 20an, Lekeitioko Kultura Etxean egin da Eusebio Maria Azkueren omenezko ekitaldia. Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa batzordearen ekimenez, Akademiak eta Lekeitioko Udalak antolatu dute euskal idazle horren omenezko jardunaldia, bere jaiotzaren bigarren mendeurrenean.

Hala, hitzaldi sorta bat eskaini da, hiru ikertzaileren eskutik: Jon Kortazar (“Eusebio Azkueren poesiaren bidetik”), Josu Bijuesca (“Parnasotik Euzkadia-ra. Eusebio M. Azkueren poesigintza eta nazio identitatea”) eta Xabier Altzibar (“Zein dira eta zein ez E. M. Azkueren bertsoak”). Xabier Arrate Lekeitioko Udaleko Euskara zinegotziak sarrera-hitzak esan ditu, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak agur-hitzak.



Jean-Baptiste "Battitu" Coyos eta Xarles Videgain euskaltzainak, Baionan, Korrikaren 18. edizioaren lekukoa eramaten.

II.5. Ondarearen Europako Jardunaldiak eta Xalbador Eguna

Urriaren zehar, "Eraldatutako ondarea" izenburupean, 2013ko Ondarearen Europako Jardunaldiak egin dira, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuak. Euskaltzaindiak "Gure hizkuntza eta literatura berreskuratuz" izeneko hitzaldi zikloa eta "Liburuaren bizitza eta iraupena" erakusketa antolatu ditu.

Akademiak urriaren lau egunetan hartu ditu Jardunaldiak: hilaren 8an, 15ean, 22an eta 29an. Lau gai desberdin jorratu dira hitzaldietan: Bizkaiko toponimoak, Bonaparte printzearen euskalkien mapa, Euskal Herriko kantak eta Axular eta *Gero* (1643) liburua. Hizlariak Mikel Gorrotxategi, Aritz Abaroa, Gorka Intxaurre, Amaia Jauregizar, Jabier Kaltzakorta eta Xabier Kintana izan dira. Azkue Biblioteka bisitatzeko ere aukera izan da, Pruden Gartzia eta Josune Olabarriaren eskutik.

Erakusketari dagokionez, urriaren 1etik 31ra egon da zabalik, Euskaltzaindiaren aretoan. Hainbat libururen aleak erakutsi dira, garai desberdinetakoak eta kontserbazio-egoera desberdinetan.



Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Atlagintza lantaldeko Aritz Abaroa, Gorka Intxaurre eta Amaia Jauregizarrek emandako hitzaldia.

Bestalde, Xalbadorrekin batera, Basarri izan du gogoan 2013ko Xalbador Egunak. Deiadarra elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatutako, urriaren 11tik 13ra Urepelen egin den festaren goiburua “Xalbador eta Basarri” izan da.

Urriaren 11n, Benito Lertxundik kontzertua eskaini du, eta 12an Xalbadorren itzalean, hamar urte Joxemari Iriondok idatzitako liburua aurkeztu da. Sebastian Lizaso, Juan Jose Eizmendi “Loidisaletxe II”, Amets Arzalluz eta Joxe Luis Gorrotxategi bertsolariak Urepelen izan dira, besteak beste.



Xalbador eguna: Joxe Mari Iriondo, Amets Arzalluz, Sebastian Lizaso, Joxe Luis Gorrotxategi eta “Loidisaletxe II”.

II.6. Estrasburgon eta Bruselan

Azaroaren 21ean, Euskaltzaindiak Europako Parlamentuaren hizkuntza gutxituei buruzko talde artekoan parte hartu du, Estrasburgon. Parlamentuaren osoko bileraren baitan egin den talde artekoaren bileran aritu dira, Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xarles Videgain buruordea.



Andres Urrutiak eta Xarles Videgainek Europako Parlamentuko hizkuntza gutxituei buruzko talde arteko bileran.

Izaskun Bilbao eurodiputatuaren ekimenez, euskararen munduko zenbait eragilek eta agintarik osatutako ordezkartzaren agerraldia izan da Europar Parlamentuan. Guztien artean, euskara biziberritzeko eta hizkuntza gutxitu baten hiztun kopurua handitzeko egin den lana aurkeztu dute.

Euskaltzaindiko kideekin batera, Patxi Baztarrika, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea; Xabier Epaltza, Euskara Kultur Elkargoaren presidentea; eta Allende Boutin, Euskararen Aholku Batzordeko kidea izan dira.

Euskal Herriko kultura izan da protagonista azaroan egin den Valonia-Bruselako “Fenêtre Ouverte” jaialdian. Aurtengo egitaraua Etxepare Euskal Institutua eta Fédération des Jeunesses Musicales Wallonie-Bruxelles erakundeek prestatu dute, elkarlanean. Euskaltzaindia ere han izan da, eta azaroaren 28an euskaltzainburuak parte hartu du Bruselan, Euskadiren Europar Batasuneko ordezkartzan egin den mahai-inguruan.

Hainbat erakundek lagundu dute egitaraua prestatzen. Hauek izan dira: Euskadiren Europar Batasuneko ordezkartza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, UPV / EHUko Mikel Laboa Katedra, Euskadiko Filmategia, Euskal Kultur Erakundea, Donostia 2016 eta Euskaltzaindia.

Aurtengo “Fenêtre Ouverte” jaialdiaren helburu nagusia euskal kulturaren aniztasuna eta adierazpen artistikoak ezagutzera ematea izan da. Hala, besteak beste, euskal musika, dantza, erakusketak, literatura, hitzaldiak eta euskaraz egindako filmez osatu da programa.

Aipatu mahai-inguruan, “Euskara eta Corpus Planning-a: Euskaltzaindiaren Lana (1918-2013)” izeneko hitzaldia eman du Andres Urrutiak. Bestalde, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Aurelia Arkotxa idazle eta euskaltzainak euskal literaturari buruzko hitzaldia eman du Point Culture gunean.

II.7. Izen Geografikoen batzorde espezializatuaren bileran, Madrilen

Azaroaren 21ean, Madrilen, Espainiako Institutu Geografikoaren egoitzan, bilera egin du Izen Geografikoen batzorde espezializatuak. Euskaltzaindiak parte hartu du, eta Mikel Gorrotxategi Onomastika zerbitzuko arduraduna bertan izan da.

Aipatu batzordea Geografiako Kontseilu Nagusiaren atal bat da, eta bere helburuen artean, izen geografiko edo toponimoen erabilera normalizatzea eta ezagutza bultzatzea dago. Bertan biltzen direnak izen geografikoetan adituak dira, eta Estatuko Administrazio Orokorreko eta autonomia erkidegoetako ordezkari gisa hartzen dute parte. Halaber, unibertsitateetako, hizkuntza akademietako eta toponimiarekin zerikusia duten bestelako erakundeetako ordezkariak ere badaude.

II.8. "Linguae Vasconum Primitiae" beste sei hizkuntzatan irakur daiteke

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, Bernard Etxepareren 1545eko Linguae Vasconum Primitiae liburuaren edizio berri bat aurkeztu dute Eusko Legebiltzarrak eta Euskaltzaindiak. Jatorrizko testuaz gain, katalan, galiziera, errumaniera, arabiera, kitxua eta txinerazko itzulpenak ditu edizio berriak. Ekitaldi berean, gainera, Jean Haritschelhar zena gogoan izan dute.

Ekitaldian hauek mintzatu dira: Bakartxo Tejeria Eusko Legebiltzarreko presidentea, Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana Akademiako idazkari eta edizioaren arduraduna. Amaieran, Xabier Kintanak euskaraz irakurri du Kontrapas poema. Liburuaren beste hizkuntzetara itzuli duten itzultzaileak ekitaldian izan dira eta irakurraldia osatu zuten. Joan Martí katalanez aritu da, Manuel González galegoz, Delia Mihaela Cristea errumanieraz, Fang Xiao txineraz, Shalan Hares arabieraz, eta, kitxuarazko itzultzaileak bertaratzerik izan ez duenez, Verónica Yuquilema, Mondragon Unibertsitateko ikasleak hizkuntza horretan irakurri du.

Horrezaz gainera, Mikel Morris, Karmele Jaio, Julia Brade, Simon Lambert eta Giovanni Zanonen bideoek aukera eman zuten Kontrapas entzuteko ingelesez, gaztelaniaz, alemanez, frantsesez eta italieraz. Amaitzeko, Xabier Leteren eta Erramun Martikorenaren ahotsak entzun dira, haiek testu horretaz egindako musika-egokitzapen ezaguna kantatzen.

III. SARIAK

III.1. Europar Hiritarraren Saria

Euskaltzaindiak 2013ko Europar Hiritarraren Saria jaso du. Europar Parlamentuak jakinarazi duenez, Europa osoko 21 herritako 43 hautagai sarituak izan dira aurrean, horien artean Akademia. Sari-emate ekitaldi bi egin dira. Lehena, irailaren 23an, Madrilen, Europar Parlamentuaren ordezkarietan. Eta bigarrena -eta nagusia- urriaren 16an eta 17an izan da, Bruselan, Europar Parlamentuaren egoitzan. Erakundearen izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak jaso du saria, Martin Schulz Parlamentuko presidentearen eskutik.



Andres Urrutia eta Martin Schulz.

III.2. Juan de Yciar saria

Euskaltzaindiak garatzen duen Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoaren argitalpena saritua gertatu da Argitaratze-kalitatearen “Juan de Yciar” sarian.

“Instituto Bibliográfico Manuel de Larramendi”-k antolatzen duen sari hori, 2012. urtean argitara eman zuen EHHA bildumaren IV. liburukiaren argitalpenagatik jaso du Akademiak.

Lau alor edo modalitatetan eman dira sariok: Artea, Haur eta Gazte Literatura, Lan orokorrak eta Dibulgaziokoak. Euskaltzaindiaren Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren IV. liburua lan orokorren sailean izan da irabazle. Sari bikoitza izan da: argitaratzailea, Euskaltzaindia, eta inprimatzailea, MCC graphics.



Leopoldo Zugaza “Juan de Yciar” saria Adolfo Arejitari ematen.

2

AKADEMIA JARDUERA

Euskaltzaindiaren akademia jardue-
ra batzorde, egitasmo eta zerbitzuen
bidez garatzen da. Hileroko osoko bilkurak
arau maila ematen die batzordeetatik dato-
zen hizkuntza-proposamenei.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker
saila eta Jagon saila. Lau urterik behin be-
rriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta
batzordekideak. Batzordekideez gain, aho-
lkulariez ere baliatzen dira batzordeak.
Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko
premien eta baliabideen arabera. Euskal-
tzain osoak, urgazleak eta esparru desber-
dinetako adituak biltzen dira batzorde ho-
rietan: unibertsitateetako eta institutueta-
ko irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen
euskalduntze-alfabetatze lanetan dihardu-
ten prestatzaileak, idazleak, komunikabi-
deetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegi-
leak, administrazioko teknikariak eta beste.

I. IKER SAILA

I.1. HIZTEGINTZA

Hizkuntza Akademia batentzako hizte-
gigintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da.
Amaituta dagoen *Orotariko Euskal Hiztegi*az
gain, Euskaltzaindiak beste bi proiektu ga-
rrantzizko ditu eskuartean: *Euskaltzaindia-
ren Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

I.1.1 Euskaltzaindiaren Hiztegia (adie- rak eta adibideak)

Euskaltzaindiaren Hiztegia (Hiztegi Batua
- 1. itzulua - Adierak eta adibideak) izeneko
hiztegiaren oinarria Euskaltzaindiak onar-
tua duen *Hiztegi Batua* da, lehen itzulian ar-
gitaratutako hitzak.

Euskaltzaindiaren Hiztegia (adierak eta adibideak) egitasmoa

Urte osoan zehar, sarrerak eta azpisarre-
ra berriak sartzeko lanean aritu da. *Hiztegi
Batuko* bigarren itzuliaren hitz zerrendako
sarrera eta azpisarrerekin -adieraz, azpiadie-
raz, definizioz eta adibidez hornituz- osatzen
jarraitu da Euskaltzaindiaren Hiztegia.

Hiztegi Batuaren bigarren itzuliko edo-
zenbat-eibartar – iruzurtu-izutzaile hitzen
arteko sarrerak erredaktatu dira eta lehe-
nengo itzuliko hainbat sarrera berrikusi dira.

Bestalde, *Orotariko Euskal Hiztegia* herri
literaturako adibideez osatu da. Ekainaren
28an, Euskaltzaindiak OEHren 3. argitaral-
di elektronikoa aurkeztu du Gasteizen, Eus-
ko Legebiltzarrean. Bertsio berriak, guztira,
ia 3.000 sarrera berri -sarrera nagusi eta az-
pisarrera- ditu. Aurkezpena honako hauek
egin dute: Andres Urrutia euskaltzainbu-
ruak; Ibon Sarasola egitasmoaren zuzenda-
riak; eta Gabriel Fraile teknikariak. Eurekin
batera, Bakartxo Tejeria Legebiltzarreko
presidentea izan da.

Hirugarren argitaraldi honetan OEHren ha- maika liburukiren berrikuspena egin da, biga- rren argitaraldian, hasierako bost liburukien berrikuspen sakona egin baitzen. Berrikuspen horren oinarri nagusiak honako hauek dira: hutsak zuzendu edo betetzea, adibideak gehi- tzea, azpi-sarrera gehiago egitea (hitz elkartuak, esapideak, kolokazioak, e.a.), eta esanahiak ze- haztea, honen arabera adibideak sailkatuz, bai- ta ere berriak sartuz.

I.1.2 *Hiztegi Batua*

Hiztegi Batua hiztegi arauemailea dugu. Hit- zen forma estandarrak biltzen ditu. Euskaraz idazterakoan sortu izan den hainbat zalan-tzari erantzuna ematera dator, hala nola beste hi- zkuntza batzuetan jatorria duten nazioarteko hitzen formak, nazioartekoak izan ez arren era- bilera zabala dutenenak, hainbat herrialdetako biztanleak adierazten dituzten hitzenak, arazo konplexuagoak izan ditzaketen forma berrienak eta beste zenbait arazo zituztenak finkatzen ditu.

Hiztegi Batuaren bigarren itzulia amaituta -2012an eman zuen bukatutzat- hirugarren it- zuliari ekin zaio. Hori amaitzean, 60.000 forma inguruko hiztegi ortografikoa izango da.

Hiztegi Batuko Lantaldea

2013an, Lexikoaren Behatokia egitasmoan



UZEI eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena sinatzeko ekitaldia: Jon Etxabe, Andres Urrutia eta Mi- riam Urkia.

dauden forma asko aztertu dira. Orotara, 267 forma berreskuratu dira, eta Hiztegi Batuan sar- tu.

Martxoaren 6an, 42.940 forma jasotzen zituen *Hiztegi Batuaren* bertsioa aurkeztu du Aka- demiak, Donostian. Andoni Sagarna eta Miriam Urkia Euskaltzaindiko Hiztegi Batuko lan- taldeko kideek aurkeztu dute. Azaldu dutenez, etengabe egiten ari den lanari esker, 2013. urte amaieran 43.009 sarrera ditu Hiztegi Batuak: 36. 845 sarrera ditu eta 6.164 azpisarrera.

Aurreko urteetako harremanei eutsiz, Euskaltzaindiak eta UZEIk lankidetzan jardun dute 2013an ere. Martxoaren 6an ere, bi erakundeen arteko lankidetzaz-hitzarmena sinatu dute. UZEIren izenean Jon Etxabe presidentek sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Andres Urrutia

euskaltzainburuak.

Euskaltzaindiaren eta UZEI elkartearen arteko harremana 1986an hasi zen, eta hainbat eginkizunetan gauzatu da: hizte-gigintzan (Hiztegi Batuaren prestalaneke fase guztietan eta batzorde eta lantaldeetako kide gisa) eta corpusgintzan (XX. mende-ko Euskararen Corpus Estatistikoaren osaera-fase guztietan eta Lexikoaren Behatokian). Hitzarmenak jasotzen duen legez, bi erakundeon arteko elkarlana euskararen corpora eguneratzeko, mantentzeko, gizarteratzeko eta erabiltzaileen beharretara egokitzeko proposatzen diren egitasmoen inguruabarrean gauzatuko da.

I.1.3. Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko egitasmoa

Egitasmo hau 2008an hasi zen lanean, eta bere helburua hau da: zientzia eta teknologia arloetan erabiltzen diren hitz oinarritzkoak bildu eta aztertu, gero horiek Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuan* txertatu ahal izateko.

Fisikako terminoen zerrenda osatu da. Astronomia eta astrofisika alorretan, aditu-taldea antolatu ostean, oinarritzko terminoen zerrenda osatu da. Eztabaidatu ostean, lantaldeak zerrenda onartu du.

I.1.4. Euskal Hiztegi Etimologikoa egitasmoa

Euskal hitzen orain arteko ikerketa historiko eta etimologikoe-tatik abiatuta, eta *Orotariko Euskal Hiztegi*an bildutako informazioa baliatuta, euskal hitzen jatorria eta historia modu sistematikoan aztertzea da asmoa.

Aurten 175 sarreraren aurre-erredakzioa egin da eta beste 65 erredakzio aurreratuko prozesuan sartu dira. 50 sarreraren

azken idatzaldia egin da.

I.1.5. Lexikoaren Behatokia egitasmoa

Hiztegi Batuko lantaldeak egungo euskararen eskaerei erantzungo dien corpus handiago baten beharra ikusi zuen, gaurko testuak etengabe bilduko dituen. Jokabide horren behatokia da, beraz, lantaldeak bultzatu duen corpus berria: Lexikoaren Behatokia. UZEI, Elhuyar eta EHUko Ixa taldearekin garatuko du Akademiak.

8.635.000 testu-hitzi dagozkien testuak katalogatu, prozesatu eta corpus egituratua txertatu dira. Zeregin guztiak burutu dira, eta kontsultarako aplikazioa Euskaltzaindiaren webgunean jarri da.

Hainbat komunikabiderek -*Berria*, *Argia*, *EiTB*, *Deia*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Diario Vasco*, *Jakin*, *AEK*, Editorial Iparragirre, *El Correorekin*- hitzarmenak



AEK da "Lexikoaren Behatokia" elikatzeko hitzarmena duen erakundeetako bat.

sinatu ditu Euskaltzaindiak, ekoiztu dituzten euskarazko testuak Akademiaren eskuetan jar ditzaten.

I.2. GRAMATIKA

Batzordeak *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izeneko liburuki bilduma burutu du. 2013an, 2012-2016 aldiari dagokion egitasmoa aurkeztu dio Euskaltzaindiari.

Ohi bezala, batzordea JAGONET zerbitzuaren bidez jaso diren galderei erantzuten aritu da.

I.3. DIALEKTOLOGIA

Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa

Galdeketa puntuen sarea, galde-sorta eta lan metodologia finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi zen Euskaltzaindia inkestak egiten. 145 herri hautatu ziren galdeketarako:

– Euskal Autonomia Erkidegoan: Araban herri 1, Bizkaian 36 eta Gipuzkoan ere 36.



Adolfo Arejita, Ana Castro, Andres Urrutia, Xarles Videgain, Patxi Baztarrika eta Pello Ugalde “Euskararen Herri Hizkeren Atlasa” bildumako V. zenbakiaren aurkezpenean.

– Nafarroako Foru Erkidegoan: 27 herri.

– Iparraldean: Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 12.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin ziren. Euskaltzaindiak bil-
durik dituen grabazioak 4.000 orduetik gora dira. Egitasmoaren helbu-
ruea galdera horiekin atlas bat osatzea da, hots, inkestaren ondorioei da-
gozkien mapak eratzea eta jendearen eskuetan jartzea.

2013an bosgarren liburukia kaleratu da. Abenduaren 12an aurkeztu
da, Bilbon. Aurrekoak bezala, Laboral Kutxaren babesarekin argita-
ratu du Akademiak. Liburuki berriak euskararen morfologia jorratzen
du, izenaren morfologia zehazki. Aurkezpena honako hauek egin dute:
Andres Urrutia euskaltzainburuak; Patxi Baztarrrika Eusko Jaurlari-
tzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak; Ana Castro Bizkaiko
Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusiak; Pello Ugalde Laboral Ku-
txako Lurralde zuzendariak; Adolfo Arejita EHHA-ren zuzendari aka-
demikoak eta Xarles Videgain egitasmoaren arduradun teknikoak.

Bederatzigarren liburukiaren 260 galderen prestaketa egin da, eta bos-
garrenaren soinuzko atlasa prest utzi da.

I.4. ONOMASTIKA

I.4.1. Onomastika batzorde ahaldundua

2013an, Onomastika batzorde ahaldundua sortu du Euskaltzaindiak.
Batzordeak 2013-2016 bitarteko Onomastika alorreko irizpideak finka-
tu eta Osoko bilkuran aurkeztu ditu. Ondoren, batzordea eratu eta hu-
rrengo urteotako egutegia finkatu du.

1990-2010 bitarteko izenen erabilera biltzen duen txostena eta gomen-
dio proposamena osatu ditu. Izen ttipien inguruko txostenak ere hasi da
aztertzen.

I.4.2. Onomastika batzordea

Onomastika batzordeak ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak az-
tertzen ditu; alegia, izendegi ororekiko finkatze, gainbegiratze, irizpen
eta ziurtagiri-emate edota aholkularitza lanetan dihardu. Hainbat he-
rritako toponimia-ikerketak eta mapak gainbegiratzen aritu da, eta
EUDEL-en bitartez datozen kontsultak erantzun dira, bai eta erakun-
deek, elkarteek eta banakakoek egiten dituztenak ere.

Batzordeak Euskal Herriko herrialdeetako Administrazio pu-
blikoetatik (EAEko Gobernu eta Diputazioetatik, Nafarroako Gober-
nutik, Ipar Euskal Herriko udal eta herrietatik) iristen diren eskariak
jaso eta erantzun ditu. Besteren artean, Deredia eta Gillarte herri ize-
nak eta Aguraingo karrika izenak onartu ditu, Iruraitz-Gauna berretsi
du, Goita auzo izena finkatu eta Eguesibar herri izenari buruzko txos-
tena landu du. Ponte izen bi onartu ditu.

Amurrioko, Berrizko eta Eako mapa toponimikoen aurkezpenak
egin dira. Aiarako toponimia nagusia / Toponimia mayor de Ayala ize-
neko liburua ere aurkeztu da. Liburua Euskaltzaindiaren Onomastika
gaietako *Izenak* bildumaren hirugarren zenbakia da. Bestalde, aben-
duare 9an, "Toponimia Administrazioaren eguneroko jardunean" ize-
neko ikastaroa egin da Baionan, Euskararen Erakunde Publikoaren
egoi-tzan. Ikastaroa Onomastika batzordeko kide hauek eman dute:
Patxi Salaberri batzordeko buruak, eta Patxi Galé, Mikel Gorrotxate-
gi, Paskual Rekalde eta Felix Mugurutza batzordeko kideek.



Aiarako Toponimia Nagusia liburuaren aurkezpena, Arabako Foru Aldundian. Ezkerretik eskuinera: Joseba Zabaleta, Andres Iñigo, Mikel Gorrotxategi, Felix Mugurtza, Iciar Lamarain Arabako Kultura diputatua eta Andres Urrutia.

I.4.3. Exonomastika batzordea

Batzorde honek exonimo edo kanpo-izenak aztertzen ditu eta araugintza, irizpen eta aholkularitza lanetan dihardu.

Aurten “Itsaslasterren izenak, itsasgune batzuen izenak eta Antartikako toponimia” (172. araua) eta “Astroen izenak” (173. araua) prestatu dira, eta Euskaltzaindiaren Osoko bil-kurak onartu.

Bestalde, Exoantroponimia landu da aurten. Antzinateko pertsona-izenak (I): Antzinateko Ekialdea (Brontze Aroa eta Goiz Burdin Aroa), Mesopotamia araugia prestatu da. Eta Mesopotamiako mitologia; Antzinateko Egiptoko pertsona-izenak eta mitologia; Judeako eta Israelgo Erre-sumako pertsona-izenak; Itun Zaharreko eta Itun Berriko pertsona-izenak; Antzinateko mundu grekoko pertsona-izenak araugiak landu ditu.

I.4.4. Euskal Corpus Onomastikoa (ECO) egitasmoa

Egitasmo honen helburua, euskarazko izen propio edo berezien ahalik eta corpus osoena biltzea da. Horretarako datu-base bat diseinatu eta datuak jasotzen jarraitu da.

Hainbat datu onomastiko erregistratu dira, eta datu bae-sean jaso. Hala, Alfontso Irigoienek *Las lenguas de los viz-caínos: antroponimia y toponimia medievales; Toponimia de Iturmendi*, Nicolás Arbizurena; edota Jose Maria Jimeno Jurioren *Toponimia de la Cuenca de Pamplona, Cendea de Cizur*. Hainbat arau akademikoren informazioa ere jaso da, eta *Orotariko Euskal Hiztegiaren* corpusean jasotako XVI. mendeko informazio onomastikoa ere bildu da.

Euskal Herriko toponimia ikerketen mapa eguneratu da, azken hiru urteetan argitaratu diren lan “mikroak” adierazita gera daitezten. Artikulu zenbaitetan aipatzen diren leku- eta pertsona- izen, eta baita deiturak ere, jaso dira.

Egitasmo hau Nafarroako Gobernuarekin sinaturiko urteko hitzarmenean es-presuki jasota dago, eta horretarako ematen duen diru-laguntzari esker egin ahal izan da.

I.4.5. Gasteizko Toponimia egitasmoa

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker jarraitu da Udal-barrutiaren toponimia biltzen eta finkatzen. 2013. urtean, Gasteizko Toponimia IV, Langraiz/ Toponimia de Vitoria IV, Langraiz argitalpena amaitu da. CD-ROM euskarrian eskaintzen da. Azaroaren 13an aurkeztu dute Euskaltzaindiak eta Gasteizko Udalak, Gasteizen. Aurkezpena honako hauek egin dute: Patxi Salaberri Zaratiegi egitasmoaren zuzendariak, Elena Martínez de Madina egileak, Alfredo Iturritza Gasteizko Udalaren Herritarrentzako Zerbitzuak eta Kirolak ar-loko zinegotziak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak.



Gasteizko Toponimia IV: Langraiz liburua aurkezpena: Patxi Salaberri, Alfredo Iturritza, Elena Martínez de Madina Salazar eta Andres Urrutia.

Hau da egitasmoaren laugarren liburukia. Aurretik beste hiru liburuki publikatu dira, *Gasteizko Toponimia I / Toponimia de Vitoria I (Ciudad / Hiria)*, *Gasteizko Toponimia II / Toponimia de Vitoria II (Malizaeza)* eta *Gasteizko Toponimia III, Gasteizko Ubarrundia / Toponimia de Vitoria III, Ubarrundia de Vitoria*.

Egitasmoaren bosgarren liburukia, *Gasteizko Toponimia V, Arratzua / Toponimia de Vitoria V, Arratzua* izenekoak, prestatzen hasi da.

I.5. LITERATURA

Euskaltzaindiko Literatura arloa bi sail nagusitan ari da lanean. Bate-tik, herri literaturaren adierazpen desberdinak aztertzen dira. Bestetik, euskal literaturari buruzko ikerketei ekin zaie, aro eta gai ezberdinak jorratuz.

I.5.1. Herri Literatura batzordea

Maiatzaren 31n, Euskaltzaindiak atal berri bat zabaldu du Interneten, bere webgunean. “Herri Literatura Jardunaldietako Antologia” du izena. Atalean Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeak antolatu dituen herri-literaturari buruzko jardunaldietako ekarpenik mamitsue-nak bildu dira. Pello Esnal batzordeko idazkariak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak egin dute atal berriaren aurkezpena, Donostian.

Bestalde, Inazio Eizmendi “Basarri” bertsolari, kazetari, idazle eta ohorezko euskaltzainaren omenez, azaroaren 29an Zarautzen egin den ekitaldian, parte hartu du batzordeak. Izan ere, aurten 100 urte bete dira “Basarri” jaio zela, eta Zarauzko Udalaren eta “Montxia” Bertso Eskolaren ekimenez urte osoko omenaldia antolatu da. Esan bezala, azaroaren 29an, Euskaltzaindiak eta Udalak “Basarri” zena omendu dute. Juan Luis Illarramendi Zarauzko alkateak eta Andres Urrutia euskaltzainburuak hasiera eman diote ageriko bilkurari. Joxe Mari Iriondo ohorezko euskaltzain eta Akademiaren Herri Literatura batzordeko ki-deak “Basarri 1931-1943” hitzaldia eman du, eta Xabier Euzkitze batzorde bereko kideak bertsoak kantatu ditu, ekitaldian zehar.

Bestalde, urtero bezala, Xalbador Egunaren antolakuntzan parte har-tu da.

I.5.2. Literatura Ikerketa batzordea

Euskal Literaturaren Antologia egiten ari da batzordea. Erdi Aroa eta Errenazimentua liburukiaren behin-behineko bertsioa osatu da. Antologia horren haritik, abenduaren 13an, batzordeak Literaturaren Historiografia. II. Jardunaldiak antolatu ditu, honako xedearekin: Antologian periodizazioa nola zehaztu argitzea. Ana Toledok, Lourdes Otaegik, Jon Casenavek, Josu Bijuescak eta Joseba Gabilondok aurkeztu dituzte beren txostenak.



Eusebio Mari Azkueri buruzko jardunaldiak, Lekeition.

Eusebio María Azkueren jaiotzaren bigarren mendeurrena dela-eta, omenezko jardunaldia prestatu du batzordeak. Irailaren 20an egin da, Lekeitioko Kultura Etxean, Lekeitioko Udalarekin lankidetzan. Hitzaldi sorta bat antolatu da, hiru ikertzaileen eskutik: Jon Kortazar (“Eusebio Azkueren poesiaren bidetik”), Josu Bijuesca (“Parnasotik Euzkadia-ra. Eusebio M. Azkueren poesigintza eta nazio identitatea”) eta Xabier Altzibar (“Zein dira eta zein ez E. M. Azkueren bertsoak”). Xabier Arrate Lekeitioko Udaleko Euskara zinegotziak sarrera-hitzak esan ditu, eta Andres Urrutia euskaltzainburuak agur-hitzak.

II. JAGON SAILA

Euskaltzaindiak sorreratik du Jagon Saila, bere helburuetan hizkuntzaren jagotea, zaintzea, alegia, ezarria duelako. Sail hau bi batzordetan dago banatua: Corpus eta Sustapen.

II.1. Corpus batzordea

Euskararen corpora jagoteaz arduratzen da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik. Honen barruan JAGONET zerbitzua dago, galderen eta erantzunen datu-basea.



Irúñean izan dira Jagon jardunaldiak “Euskara Nafarroatik” izenburupean.

Batzordeak Gramatika batzordeko Juan Garziak egindako *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak* lanari oniritzia eman dio.

II.2. Euskalkien Lantaldea

Lantaldea “Euskalkietatik euskara batura: nola osatu Hiztegi Batua” egitasmoa lantzen ari da. Aurten G letra aztertu da. Bestalde, A-tik F-rako hitz-zerrendak eta txostenak prestatzen hasi da, Hiztegi Batuan sartzeko.

II.3. Sustapen Batzordea

Batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratzen da. Aurten, XVII. Jagon Jardunaldietan aurkeztutako hitzaldiak eta txostenak bildu eta Euskera, 2012, 57, 1-2 agerkarian argitaratu dira, “Euskararen geroa Ipar Euskal Herrian” goiburupean.

Bestalde, aurten XVIII. Jagon Jardunaldiak egin ditu, “Euskara Nafarroatik” gaiaren inguruan. Hauek izan dira parte-hartzaileak: Jon Aizpurua, Julen Calvo, Paula Kasares, Juan Karlos Etxegoien Xamar, Xabier Erize, Ainhoa Urretagoiena, Garikoitz Torregrosa, Iñaki Lasa, Mikel Belasko, Ana Mindegia, Gaizka Aranguren, Javier Fernandez, Joxerra Olano, Oskar Zapata, Txomin Uhartte eta Xabier Epaltza. Andres Urrutia euskaltzainburuak, José Iribas Nafarroako Gobernuaren Hezkuntzako kontseilariak eta Jean-Baptiste Coyos Jagon sailburuak hasiera eman diote jardunaldiari. Amaieran, Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak eta Erramun Osa idazkariak ondorioak irakurri dituzte.

II.4. Joanes Etxeberri Egitasmoa (Euskararen Historia Soziala-EHS)

Egitasmoak euskarak, eta berarekin harremanetan izan diren hizkuntzek denboran zehar izandako gizarteko izaera-bizierak aztertzen ditu; iraganaren jarioan datozen gizarteko hizkuntzekiko usteak, zientziak, antolaerak, egoerak, jarrerak, jokabideak, aldakuntzak eta abar ikertu nahi ditu, Linguistika, Soziologia eta Historiografiaren artean kokatuz.

2013an, metodologia-ereduaren txostenaren zirriborro osoa idatzi da.

Euskal aipamenak arabiar iturrietan liburuan eta Euskara eta euskal gizartea XVII. eta XVIII. mendeetan: lehen hurbilpena ikersaioan lanean aritu da. Datu-basea elikatzeko zereginean ere lanean jardun da.

III. EGITURAZKO BATZORDEAK

III.1. Argitalpen batzordea

2013rako Argitalpen alorreko plangintza aztertu da. Erabakitakoa, egoki eta aurreikusitako epe eta aurrekontuan betetzen dela bermatzen du.

III.2. Azkue Biblioteka eta Artxiboa batzordea

Batzordeak Azkue Bibliotekako lanen jarraipena egin du 2013. urtean zehar. Horrez gainera, Euskaltzaindiaren artxibo administratiboa antolatzeke lanari ekin zaio. Artxibo Lantalde Suntsikorra (ALS) sortu da. Orobat, funts administratibo historikoen deskribapenean aurrera egin da 1963ra arte.

Azkue Bibliotekaren artxiboaren atal artxibistikoko materialak atondu eta deskribatu dira. Garrantzi berezia dute Euskaltzaindiak aurreko hamarkadatan sustatutako hainbat literatur-sarietako materialak. Bi

inbentario aurkeztu eta onartu dira: ABA-ABC atala: funts historikoen gida eta ABA-EUS (transferitzekoak). Euskaltzain osoen fitxa berriak egiteari ekin zaio. Fitxa ereduaz aztertu eta ontzat eman da.

HABE liburutegiarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu da.

III.3. Informazio eta Komunikazioaren Teknologia batzordea (IKT)


Euskaltzaindiak sortzen dituen edukiei behar bezalako zabalkundera ematea da batzordearen eginkizuna, teknologia berriak eskaintzen dituzten baliabideak erabiliz, eta erabilera-baldintzak aztertuz.

2013an, OEHren 3. argitaraldiko edukiak prest utzi dira webguneratzeko. EHHA lantaldearen barnerako aplikazioa berritzeko lanak, eta mapagintza eta kudeaketa moduluak egokitzekoak, amaitu dira. XX. mendeko Corpus Estatistikoaren bilatzaile berria webguneratzeko lanak egin dira. Mahaigaineko ekipoak berritzeko lanean aritu da. Euskal Onomastikaren Datutegia kontsultatzeko tresna hobetzeko proiektuko lanak egin dira.

Halaber, aurreikusitako argitalpenen bertsio elektronikoak webguneratu dira.

III.4. Erlea aldizkaria

2013an *Erlea* aldizkariaren zazpigarren zenbakia argitaratu da.



IV. R. M. AZKUE SARIAK



2013ko Azkue Sariaketan saritutako idazle gazteak.

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioarekin batera idazle gaztetxoek lanak saritzen ditu urtero. Sariak bi genero ditu: narrazioa eta olerkia. Genero bakoitzak bi maila ditu: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 18 urte bitartekoentzat. R. M. Azkue Sariak idazle gazteak literatura mundura erakartzea dute helburu nagusia.

Hona hemen 2013ko R. M. Azkue saria irabazi dutenak:

Saria	Lan saritua	Egilea	Ikastegia
A: narrazioa 10 - 13 urte	1) <i>Mundiala!</i>	Maddi Aiestaran	Beasain Inst. (Beasain)
	2) <i>Zintzoa izateko ipuina</i>	Olatz Bereziartua	Urola Ikastola (Azpeitia)
	3) <i>Matinaren ibilbidea</i>	Anne Agirre	Seber Altube (Gernika)
A: poesia 10 - 13 urte	1) <i>Egunsentia</i>	Lorea Azpiazu	Urola Ikastola (Azpeitia)
	2) <i>Ezer ez da betiko</i>	Naia Ordorika	Seber Altube (Gernika)
	3) <i>Parkea</i>	Aiora Amenabar	Urola Ikastola (Azpeitia)
B: narrazioa 14 - 17 urte	1) <i>Jnais Joplin, sudur gorriak eta arrautza frijituak</i>	Lourdes Ondaro	Gernika Inst. (Gernika)
	2) <i>Lagun minak</i>	Markel Txasko	K. Mitxelena (Errenteria)
	3) <i>Egunari beldur</i>	Ane Saiz	Laudio Inst. (Laudio)
B: poesia 14 - 17 urte	1) <i>Lehertu, atertu, desertu</i>	Maialen Akizu	Iparragirre (Urretxu)
	2) <i>Amaraunak</i>	Inhar Esnaola	Orixe (Tolosa)
	3) <i>Itzaldu</i>	Maialen Akizu	Iparragirre (Urretxu)

Epaimahaikoak hauek izan dira:

A mailan: Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta.

B mailan: Joseba Butron, Amaia Jauregizar eta Jabier Kaltzakorta.

Bestalde, azaroan, *Narrazioak eta olerkiak 2012* liburua kaleratu da. Bertan, iazko Azkue sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak jaso dira. Hauen lanak jaso dira: Izar Foroni, Iñaki Arizmendi, Uxue Imaz, Garazi Mugarza, Markel Txasko, Maialen Akizu, Eider Perez eta Maialen Elortza. Nerea Urrestilla, Ana Zubiaurre, Olatz Erkoreka eta Jon Foruria gazteek idatzitakoak ere jaso dira, epaimahaikoen gomendioz.

3

ERAKUNDEAREN ZERBITZUAK

Bilboko Plaza Barrian du Euskaltzaindiak egoitza. Bertatik eramaten dira azpiegiturazko koordinazio lanak eta hor kokatzen dira eremu honi lotuta dauden zerbitzuak: Idaz-karitza, Ekonomia, Azkue Biblioteka, Onomastika, Argitalpen eta Banaketa, Prentsa eta Komunikazioa eta Informatika eta Telekomunikazio zerbitzuak. Jagonet zerbitzua, aldiz, Donostiako ordezkartizan dago.

Erakundeei, elkarteei nahiz gizabanakoei hurbileko zerbitzuak eskaintzeko asmoarekin, egoitzaz gainera, Euskal Herriko lau hiriburutan kokatu ditu Euskaltzaindiak bere ordezkartitzak: Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñea. Garrantzi handikoak dira jendearekiko harremanak: hizkuntzarekiko kontsultak, ziurtagiriak eta talde-bisitak, besteak beste. Hauek, egoitzatik eta ordezkartizetatik bideratzen dira.

Bulego horietara etortzen diren hiritarren eskabideak etengabe erantzuten dira, ponte-izen eta deituren ziurtagiriak eginenez, gehienbat, baina baita ere toponimia eta euskararekiko beste gai ugari aztertuz. Egoitzan eta ordezkartizetan ponte-izen eta deiturei buruzko ziurtagiriak egiten dira.

Horrezaz gain, egoitzako aretoa kultura erakunde eta elkarteei irekirik egon da euskararen inguruko gai, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako.

I. Azkue Biblioteka eta Artxiboa

Liburuek, aldizkariak eta antzekoek osatzen dute Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK). Lau prozesu desberdin sartzen dira hemen: erosketa/eskuraketa, katalogazioa, erabiltzaileekikoak (kontsulta, mailegua, kopia) eta mantentzea. Azkue Biblioteka Pruden Gartziak zuzentzen du.

2013an, 1.482 item eskuratu dira eta horie-

tatik 862 ABKn integratu dira.

Bibliotekaren eta Artxiboaren katalogoen mantenua egin da. Hauek dira emaitzak: 3.011 argazki, 164 dossier eta 327 erregistro egin dira Argazki Artxiboan (ABI). 7 item sartu dira Soinu Artxiboan (SOI), 19 Bideo Artxiboan (BID) eta 625 dossier Artxibo Administratiboan (ABA-EUS). Bibliotekaren Katalogoan 862 item prekatalogatu eta 543 katalogatu dira.

Xipri Arbelbideren soinuazko ondarea (ABA-XAR) eta Iparraldeko Toponimia Ikerketa ondarearen (ABA-ITI) zati bat digitalizatu dira. Ahozko Tradizioa Hizkeren Corpusa egitasmoko materialak Azkue Bibliotekaren Artxiboan integratu dira. Juan Mari Lekuonaren zenbait artxibo-material (LEK) digitalizatu dira, 359 dossier osatuz.

Euskaltzain osoen 30 fitxa berri eta ohorezkoen 28 egin dira, eta Azkue Bibliotekaren dosierak datu-basean (ABD) in-

tegratu. Orobat, dokumentazio-zentroaren biltegi digital berria abiatu da, Prentsa zerbitzuarekin elkarlanean. Euskaltzainen Dosier Bilduma (ABA-EDB) du izena.

Onomastika eta Exonomastikako funtsak ikuskatu eta atondu dira (55 kutxa) eta Azkue Bibliotekako dosier alfabetikoen atala (ABC) atondu eta deskribatu da (1.206 dosier). Bi liburu-erakusketa antolatu dira, bata euskal emakume idazleei buruz, Bilboko Liburu Azokaren barruan, eta bestea “Liburuen bizitza eta iraupena” izenekoa, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu eta Euskaltzaindiak parte hartu duen Ondare Jardu-



Azkue Bibliotekako irakurleen gela.

naldien barruan.

II. Onomastika Zerbitzua

Hiru arlo nagusitan banatzen da lana: deiturak, ponte izenak eta leku-izen edo toponimoak. Erakunde, enpresa zein gizabanakoengandik datoz galderak, eta batzuek berehalako erantzuna behar izaten dute -jaioberriak erregistratzeko, adibidez- eta beste batzuk ikerketa luzeagoa. Mikel Gorrotxategi da zerbitzu horren arduraduna.

2013an, 101 pertsona etorri dira egoitzara kontsultak egitera, gehien bat pertsona-izenen inguruan, 49; deiturez (29) eta leku izenez (23) ere galdetu dute. Bestalde, 622 telefono dei baino gehiago jaso dira, bai partikularrek eginda, bai eta erregistroek ere. Azken hauek 178 dei egin



Berrizko toponimiaren aurkezpena.

dituzte, pertsona izenen egokitasunez eta deituren idazkerez galdezka.

Lekuek eta deiturek sortutako zalantzak kontsultatzen badira ere, batez ere pertsona izenak dira interesa handiena sortzen dutenak. Hala, 600 kontsulta inguru jaso dira izenei buruz, eta horietatik 400 kontsultatik gora partikularrek egin dituzte, eta gainerako guztiak bake epaitegiek edo erregistroek. Bestalde, posta elektronikoen bitartez ere egiten dira galderak eta hemen ere izenak dira gehien kontsultatzen direnak. 900tik gora mezu erantzun dira, zifra horren erdia pertsona-izenei dago-kielarik.

EUDELekin indarrean dagoen hitzarmenak jaso bezala, udalei Onomastika alorreko aholkularitza ematen zaie. 2013. urtean honako laguntzak eman dira: Aiaraldeko mapa, Arangiz herri izenari buruzko txostena eta agiria, Aulestiko toponimoak, Basauriko mapa, Berantevillako mapa, Berrizko mapa eta txosten bereziak, Bidania-Goiatzko eskaera herri izenaz, Bilboko mapa, Elantxobeko mapa, Elgoibarko mapa, Erriberagoitiko mapa, Gillarte izenari buruzko txostena Kuartango Udalarentzat, Hernaniko mapa, Kuartango mapa, Lagrango mapa, Lanestosako mapa, Lasarte-Oriako mapa, Mallabiko mapa, Sopela herri izenari buruzko txostena eta agiria, Usurbilgo herriko ikerketa atontzea, Zallako mapa, Zamudioko mapa eta Zornotzako mapa.

Bestalde, ondoko kale izendegiak prestatu ditu: Aguraingo kaleak, Etxebarriko kale izendegia, Antsoategi toponimoa Eskoriatzako udalak eskatuta, Galdakaoko kale izen berriak. Getxoko kale izendegia, Iruña Okako hainbat izen, Jatsuko karririkak, Kanboko karririkak, Lehuntzeko karririkak, Oiongo kale izendegia eta Vianako kaleak.

Arabako eta Bizkaiko foru aldundiek, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak edota Euskarabi-deak egindako kontsultak erantzun izan dira. Zerbitzuko arduradunak irratsaio bat egin du Bizkaia Irratian, Bizkaiko toponimiaz. Eta ondoko hitzaldi eta aurkezpenak egin ditu: Amurrioko eta Berrizko mapen aurkezpena; eta hitzaldiak Tolosan, Mallabian eta Portugaleteko Asti Leku ikastolan.

Horretaz gain, Onomastika batzordearen lanak ere egiten ditu.

III. Argitalpen Zerbitzua

Euskaltzaindiak 2013an 13 argitalpen publikatu ditu. Horretaz gain Akademiaren argitalpen ugari, formatu desberdinetan, www.euskaltzaindia.net webgunean ikusgai eta erabilgarri daude.



2013an argitaratu edo aurkeztu diren argitalpenen artean jendarteko zabalkunde handikoak izan dira, besteak beste, honakoak: *Jon Mirande*, *olerkaria* eta *Aiarako Toponimia Nagusia*.

Jarraiko argitarabidea gauzatu du Euskaltzaindiak 2013. urtean:

- *Euskera*, 2012,1-2. Egileak: Batzuk
- *Euskera*, 2012,3. Egileak: Batzuk
- Euskaltzaindiaren 2012ko *Oroitidazkia* (euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez)
- *Lehen Mundu Gerra "Eskualduna" astekarian*. Egilea: Eneko Bidegain
- *Amodioaren martirra*. Prestatzailea: Xabier Altzibar
- *Zubererazko istorio, alegia eta ipuin irri-egingarri*. Prestatzailea: Jean-Baptiste Coyos
- *Le fondement moral des droits culturels de l'homme* (Kultura eskubideen oinarri etikoak). Egilea: Piarres Xarriton
- *Gasteizko toponimia IV: Langraiz*. Egilea: Elena Martinez de Madina Salazar
- *Euskararen Herri Hizkeren Atlas V*
- *Aiarako Toponimia Nagusia*. Egileak: Patxi Galé – Mikel Gorrotxategi – Felix Mugurutza
- *Erlea* aldizkariaren 7. zenbakia. Zuzendaria: Bernardo Atxaga. Egileak: batzuk
- *Narrazioak eta olerkiak, 2012*. Egileak: batzuk
- *Linguae Vasconum Primitiae 2013* (galegoz, katalanez, errumanieraz, kitxuaz, txineraz eta arabieraz). Prestatzailea: Xabier Kintana

Argitalpen hauetaz gain, aurreko urteetan kaleraturiko zenbait lanen bertsio digitalak webgunean integratu dira:

- *Euskera* 2011,1-2. Egileak: batzuk.
- *Euskera* 2011,3. Egileak: batzuk.
- Onomasticon Vasconiae bilduma osoa

- *Onomastique du nord du Pays Basque (XIème – XVème siècles)*. Egilea: Eugene Goyeneche; Prestatzailea: Xarles Videgain
- *Escritores euskéricos contemporáneos*. Egilea: Gorka Aulestia
- *Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz*. Egilea: Jüje Etchebarne
- *El movimiento de las Ikastolas*. Egileak: Batzuk
- *Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa*. Egilea: Pello Esnal
- *Euskararen Herri Hizkeren Atlas IV*
- *Euskal Gramatika Lehen Urratsak VII. Aditz jokatu gabeak*. Egilea: EGLU batzordea.
- *Leioako leku-izenak*. Egileak: Patxi Galé – Mikel Gorrotxategi – Goizalde Ugarte.
- *Bertze prediku batzuk*. Egilea: Gratien Adema "Zaldubi". Prestatzailea: Henri Duhau

IV. Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua

IKT batzordearen zuzendaritzapean, berrikuntza teknologikoaren arloan, lan hauek egin dira, besteak beste: EHHA lantaldearen barnerako aplikazioa berritzeko egitasmoa amaitzea, XX. mendeko corpus estatistikoaren bilatzailea berritzeko egitasmoa amaitzea, Hiztegiak erredaktatzeko softwarearen egitasmoa, Webguneko Euskal Onomastikaren Datutegiko bilatzailea hobetzeko egitasmoa. Gainera, honako egitasmoei hasiera eman zaie: EHHArako IPA silabizazio egitasmoa eta Erakundearen mahaigaineko ekipoak berritzeko egitasmoa.

Egitasmo guzti hauez gain, Euskaltzaindiaren argitalpenak eta arau-erabakiak webguneratuzko lanak egin dira (Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Onomastikaren Datutegia, etab.), Webgunearen CMS (Content Management System) plataforma bertsio-berritu da eta Araba eta Iparraldeko ordezkarietzako telekomunikazio-sistemak eguneratu dira.

Iñaki Kareagaren ardurapean garatzen den zerbitzu honi sistema informatikoak mantentzea ere badagokio.

V. Prentsa eta Komunikazio Zerbitzua

Zerbitzu honek honako helburu hauek betetzen ditu: Euskaltzaindiaren eta komunikabideen arteko loturak sendotzeko, gizarteak Akademiaren jardueraren berri izatea eta Akademiak, elkarlanean, beste erakunde eta elkarteekin egiten dituen ekintzen eta eginkizunen berri ematea. Amaia Okariz da arduraduna.

Bestalde, euskaltzainen curriculumak egitea eta eguneratzea zerbitzu honi dagokio, webguneko albisteak gaurkotzearekin batera. Erakundearen hileroko barnerako informazio buletina, Albiste Orri deritzana, eta Oroitidazkia egiten ditu Idazkariordearekin batera. Plazaberri bloga kudeatzea ere zerbitzu honi dagokio. 2013an, 271 albiste argitaratu ziren blogean.

2013an egindako lanen artean hauek aipa daitezke: Euskaltzain oso baten eta 14 euskaltzain urgazleren izendapenak; euskaltzainen heriotzak (Karmele Rotaetxe eta Jean Haritschelhar); hilberri txostenak (Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”, Karmele Esnal, Josu Arenaza eta Jean Haritschelhar); Euskaltzaindiaren XVIII. Jagon Jardunaldiak; Orotariko Euskal Hiztegiaren argitaraldi elektronikoa berriaren aurkezpena; Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA) V. liburukiaren eta bestelako argitalpenen aurkezpenak; Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena sariak; Eusebio Mari Azkueri eta Inazio Eizmendi “Basarri”-ri Lekeition eta Zarautzen egin zaizkien omenaldiak; Euskaltzaindiaren presentzia Estrasburgon, Europako Parlamentuaren hizkuntza gutxituei buruzko talde artekoan, eta Bruselan, “Fenêtre Ouverte sur le Pays Basque” jaialdian; edota erakunde eta elkarte askorekin sinatu diren lankidetzak hitzarmenak.

VI. Jagonet

JAGONET Euskaltzaindiaren kontsulta- eta aholku-zerbitzua da. JAGONETen eginkizuna euskararen erabilera zuzena eta egokia eragitea da, euskararen erabilera argitzea, euskaltzaleon lagungarri. Euskaltzaindiaren webgunean JAGONETeko galde-erantzunen datu-basea kontsulta daiteke. Azkenik, euskaltzaleak bilatzen duena hor ere aurkitzen ez badu, orduan Euskaltzaindiari bidal diezaioke bere zailtza JAGONETeko galdelekura. Euskaltzaindiaren Interneteko galdeleku hori posta elektronikoa bidezko zerbitzu zuzena eta banakakoa da eta pribatua galdegilearekiko.

2013ko datuak ondoko hauek dira: JAGONETeko datu-basean 598 galde-erantzun ageri dira webgunean, eta 56.433 aldiz bistaratu dira galde-erantzun horiek. Galdelekuan, berriz, 697 galdera jaso dira eta horietako 693 erantzun dira.

Joxe Ramon Zubimendi da zerbitzuaren arduraduna.

HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDEAK

Euskaltzaindiak hitzarmenak ditu hainbat herri administrazio, Erakunde, komunikabide eta elkarterekin. 2013ko abenduaren 31n, hau da zerrenda:

Finantzaketa-hitzarmenak:

- Eusko Jaurlaritza
- Arabako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernua
- Espainiako Gobernua
- Euskararen Erakunde Publikoa - Office Public de la Langue Basque
- Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
- Laboral Kutxa

Lankidetzeta-hitzarmenak:

- AEK
- Argia aldizkaria
- Baionako Mediateka
- Bergarako Irigoyen Patronatua
- *Berria* egunkaria
- Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Elizbarrutiak
- Bilboko Udala
- Bilbo Zaharra euskaltegia
- Bizkaia Irratia
- Deia egunkaria
- Deustuko Unibertsitatea
- Editorial Iparragirre
- EiTb
- *El Correo* egunkaria
- *El Diario Vasco* egunkaria

- Elhuyar Fundazioa
- Errioxako Unibertsitatea
- Etxepare Euskal Institutua
- EUDEL
- Euskalerrria Irratia
- Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa
- Euskal Herriko Unibertsitatea
- Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra
- Euskarazko Komunikazio Taldea
- Euskal Kultur Erakundea
- Eusko Ikaskuntza
- Frantziako Institutu Geografiko Nazionala
- Gasteizko Udala
- HABE
- Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE-IVAP)
- Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzua
- Jabetza eta Merkataritza Erregistratzaileen Elkargoaren EHko lurralde dek.
- *Jakin* aldizkaria
- Jakinberri
- Labayru Euskal Kulturaren Erakundea
- Langune Elkarte
- Mintzola Fundazioa
- Mondragon Unibertsitatea
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- *Noticias de Gipuzkoa* egunkaria
- Olaso Dorrea Sorrerakundea
- Soziolinguistika Klusterra
- Topagunea
- Udako Euskal Unibertsitatea
- Unesco Etxea
- UZEI



Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmena: Xabier Kintana, Andres Urrutia, Iñaki Dorronsoro eta Rosa Miren Pagola.



Euskaltzaindia eta Editorial Iparragirre-ren arteko hitzarmena: Xabier Kintana, Iñaki Alzaga, Andres Urrutia, Joseba Santamaria eta Bingen Zupiria.



Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmena: Julen Calvo, Máximo Gómez, Andres Urrutia eta Andres Iñigo.



Euskaltzaindia eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmena: Andres Urrutia eta Pantxoia Etxegoin.


5


WEBGUNEA ETA GIZARTERATZEA

Euskaltzaindiaren webguneak 836.576 bisita izan zituen 2013an. Bestalde, webguneko orriek 4.090.482 bistaratzeko izan zituen urte berean. Bestalde, Akademiaren webgunean gehien bisitatutako edukiak Euskal Onomastikaren Datutegia eta Hiztegi Batua izan dira. Hauek dira datuak:

www.euskaltzaindia.net	2013
1) Bisitak, guztira	836.576
2) web-orrialde bistaratzeak:	
Zuzeneko sarbideak webguneko atarira	163.135
Hiztegi Batua	785.243
Euskaltzaindiaren Arauak	70.872
JAGONET zerbitzua	56.433
OEH (Orotariko Euskal Hiztegia)	508.672
EODA (Euskal Onomastikaren Datutegia)	1.319.265
Argitalpenen katalogoa	35.778
Plazaberri bloga	44.720
Beste guztiak	1.096.364
Web-orrialde bistaratzeak, guztira	4.090.482

	urtarila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	iraila	urria	azaroa	abendua	GUZTIRA
ADMINISTRAZIOA	14	28	23	11	17	16	31	19	16	14	21	210
BIBLIOTEKA	17	23	22	11	25	22	19	35	57	29	30	290
GUZTIRA	31	51	45	22	42	38	50	54	73	43	51	500





6

EUSKALTZAINDIAREN BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA

Oroitidazkian agertzen diren Balantzea eta Galdu eta Irabazien kontua PKF ATTEST auditoria etxeak ikuskatu ditu. Urteko kontuen ikuskaritza txostenaren arabera *“2013 urteko kontuek, arlo esangura-tsu guztietan, 2013ko abenduaren 31n Euskaltzaindiaren ondarearen, egoera finantzarioaren eta data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzen irudi fidela adierazten dute, eta aplikagarria zaien legeria eta araudia jarraituz osatu dira.”*

Urte amaierako Balantzea Euskaltzaindiko ondarearen egoera azaltzen duen agiria da, eta erakundeak daukan ondarearen zerrenda zehazten du (Aktiboa), ondare hori finantzatu duten baliabideekin batera (Pasiboa).

Aktiboak erakundeak daukana (eraikuntzak, instalazioak, izakinak, dirua,...) erakusten du.

Bere aktiboa finantzatzeko erakundeak erabili dituen baliabideak zeintzuk izan diren adierazten du Pasiboak (ondare garbia, hornitzaileak,...).

Urteko Galdu eta Irabaziak Euskaltzaindiak izan dituen diru-sarrerak eta gastuak islatzen ditu, eta bien arteko diferentziak ekitaldiko emaitza eskaintzen du. 2013ko ekitaldiari dagokionez, hauek dira ondorio nagusienak:

1.- Euskaltzaindiak ekitaldi ekonomiko orekatua izan du. Jasotako eta gastatutako kopuruak berdintsuak izan dira.

2.- Bizi dugun egoera ekonomiko zailaren ondorioz, Herri Aginte eta erakunde pribatuek Euskaltzaindiari eman dizkioten diru-laguntzak beherantz etorri dira, etengabe, azken lau urteotan. 2013a ere ez da izan ezberdina. Horren aurrean Akademiak gastuak egokitu behar izan ditu, lehentasu-

nak ezarriz eta partida eta gastu-kontzeptu guztietan efizientzia bilatuz.

3.- Testuinguru ekonomiko zaila izan arren, Euskaltzaindiak urte hasieran aurreikusitako plana bete du, eta ahaleginak egin ditu zerbitzu, batzorde nahiz ikerketen bidez gizarteari egiten dion ekarpena gero eta handiagoa eta aberatsagoa izan dadin.

EUSKALTZAINDIAREN BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA

BALANTZEA (EUROTAN)

AKTIBOA	2013/12/31	2012/12/31	PASIBOA	2013/12/31	2012/12/31
AKTIBO EZ-KORRONTEA	943.262	985.193	ONDARE GARBIA	1.545.751	1.559.687
Ibilgetu ukiezina	30.475	46.275	Fondo propioak	1.190.111	1.191.326
Patenteak, lizentziak, markak eta antzerakoak	12.048	14.517	Aurreko ekitaldietako soberakinak	1.191.326	1.192.717
Aplikazio informatikoak	18.427	31.758	Ekitaldiko soberakina	(1.215)	(1.391)
Ibilgetu materiala	882.305	908.436	Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta ondareak	355.640	368.361
Lurrak eta eraikuntzak	640.463	651.274			
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	241.842	239.895	PASIBO EZ-KORRONTEA	73.997	82.049
Bideango ibilgetua eta aurrakinak	-	17.267	Epe luzeko hornidurak	73.997	82.049
Epe luzeko finantza-inbertsioak	30.482	30.482			
Gainerako aktibo finantzarioak	30.482	30.482			
AKTIBO KORRONTEA	1.028.549	1.177.194	PASIBO KORRONTEA	352.063	520.651
Izakinak	17.361	20.170	Epe laburreko zorrak	31.059	25.953
Erabiltzaileak eta berezko jarduerarekin lotutako zordunak	24.902	10.500	Gainerako pasibo finantzarioak	31.059	25.953
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	677.387	705.655	Hartzeko komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	321.004	486.198
Hainbat zordun	90.804	55.852	Hornitzaileak	189.119	195.768
Langileria	-	318	Langileria	13.084	1.582
Zordunak, Herri Aginteak	586.583	649.495	Hartzekodunak, Herri Aginteak	118.801	288.848
Epe laburreko finantzantza-inbertsioak	680	1.775	Epe laburreko aldizkatzeak	-	8.500
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	308.219	439.084			
AKTIBOA GUZTIRA	1.971.811	2.162.387	PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA	1.971.811	2.162.387

EUSKALTZAINDIAREN BALANTZEA ETA GALDU-IRABAZIEN KONTUA

GALDU-IRABAZIEN KONTUA (EUROTAN)

	2013	2012
Erakundearen berezko jardueraren sarrerak	2.822.208	2.841.253
Salmentak, promozioak eta lankidetzak hitzarmenak	89.830	77.062
Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak	2.732.378	2.764.191
Ekoizkin bukatuen eta fabrikazioan dauden ekoizkinen aldaketa	(2.809)	(23.780)
Ustiapeneko bestelako sarrerak	478	690
Pertsonal gastuak	(1.272.036)	(1.259.648)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(990.332)	(972.779)
Gizarte-zamak	(281.704)	(286.869)
Ustiapeneko bestelako gastuak	(1.424.357)	(1.416.752)
Kanpoko zerbitzuak	(1.421.248)	(1.416.076)
Tributuak	(2.837)	(314)
Merkataritza eragiketetatik datozen horniduren aldaketak, hondatzeak eta galerak	(272)	(362)
Ibilgetuaren amortizazioa eta hondatzea	(130.077)	(169.709)
Ekitaldiko soberakinari traspasatutako kapital dirulaguntzak	12.721	12.721
Bestelako emaitzak	1.370	13.946
USTIAPENENKO SOBERAKINA	7.948	(1.279)
Sarrera finantzarioak	8.447	4.615
Balore negoziagarriak eta bestelako finantza-tresnak	395	1.015
Horniduren eguneratzea	8.052	3.600
Gastu finantzarioak	(17.160)	(4.727)
Hirugarrenetikiko zorrenak	(17.160)	(4.727)
ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	(8.173)	(112)
EKITALDIKO SOBERAKINA	(1.215)	(1.391)



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE